

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

59 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Arnaldo Otegiren askatasuna eta sozialismoaren aldeko borroka



2. Editoriala: Arnaldo Otegiren askatasuna eta sozialismoaren aldeko borroka • 4. Estatu espainiarra: PSOE eta eskuinaren arteko loturak • 7. Apirilaren 13 eta 14ko ikasle greba • 8. Martxoak 8 eta emakume langilearen borroka • 10. 1976ko martxoak 3: sarraskiaren 40. urteurrena eta Gasteizko langile mugimenduaren borroka eredugarria • 12. Bake prozesua Sirian? • 16. Udaberri Arabiarraren bosgarren urteurrena. Inperialismoak eta kontrairaultzak ez dute lortu borroka geldiaraztea

Arnaldo Otegiren askatasuna eta sozialismoaren aldeko borroka

2.331 egun espetxean igaro ondoren Arnaldo Otegik askatasuna berreskuratu du. Rafa Diez LABeko idazkari nagusi ohiak, berriz, espetxean jarraituko du 2017ko udaberrira arte. Arnaldo Otegi eta Rafa Diez 2009ko urrian atxilotu zituzten LABen egoitza nagusian Sonia Jacinto, Miren Zabaleta eta Arkaitz Rodriguezekin batera Bateragune kasuaren barnean. Geroago jakin zenez, ezker abertzaleko bost kide hauek eztabaida garrantzitsu baterako testua prestatzen ari ziren: ETArek ekintza armatuaren amaieraren defentsa. Hala ere, Arnaldo Otegi “treguas encubiertas” deitutakoak lortzeaz akusatu zuten.

Bateragune kasuko epaiketa 2011ko ekainean hasi zen eta lehenengo egunetik Arnaldo Otegik adierazi zuen azkeneko prozesu negoziatzailearen ondoren, ondorio batera iritsi zirela: “Lejos de solucionar los problemas, la utilización de la violencia o la amenaza de ella en conflictos políticos los enquistas”. Arnaldo Otegi oso argi zuzendu zitzaion epaileari. Estrategia politiko-militarrarekin jarraitzearen alde zegoen ponentzia alternatibo bat (Mugarri) zegoela azaldu zuen eta, horregatik, beraiena “erradikalki ezberdina” zela. Bere ustez: “ETA pensaba que era posible acumular fuerzas manteniendo la lucha armada y nosotros pensábamos que no”.

Honek guztiak erakusten du estatutu aparatuen, eskuinaren eta garai hartako Alfredo Perez Rubalcaba Barne ministroaren helburua ezker abertzaleko arduradun garrantzitsu hauen inizatiba politiko berria oztopatzea zela. Gertatutakoa ikusita, dirudienek, eskuinak eta estatu aparatuen nahia- go zuten ETArek ekintza armatuaren jarraipena, atentatuak beren onura politikorako erabiltzeko. Are gehiago, ETArek ekintza armatua uztea iragarri ondoren, antolatu diren neurri errepresibo eta probokazio guztiak edo presoen dispersio

politikari amaiera ez eman nahi izatea, ezker abertzalearen barne zatiketa lortzeko helburuarekin diseinatu daudela ematen du.

Belodromoko ekitaldia

Espetxetik atera eta egun gutxira, martxoaren 5ean, harrera ekitaldi nagusia egin zitzaion Arnaldo Otegi-ri. Bai Belodromoa bai antolatzaileek kanpoan jarritako karpa erraz bete ziren. Antolatzaileek 13.500 pertsonentzako tokia zuten prestatuta, eta hurbildu zen jende kopuruagatik asko ezin izan ziren Belodromoan edota karpan sartu.

Preso jarraitzen dutenentzat izan ziren Otegiren lehen hitzak eta, bereziki, berarekin batera auzipetutako Rafa Diezentzat. Geroago, autokriti-

ka egiteko ere tarte hartu zuen, besteak beste, krisi ekonomikoa hasi zenean jendearen lehentasunak aldatu zirela eta ezker abertzalea hori ondo irakurtzeko gai ez zela izan esan zutenean bezala.

Baina borrokan jarraitzeko deia izan zen bere diskurtsoko ildo nagusia eta oso positiboa izan zen klaseko ikuspegia erabili zuen sarritan. Ikusi besterik ez dago ze hitzekin eman zion amaiera bere diskurtsuari Angela Davis erreferentzia eginez: “Angela Davis, mujer, feminista, negra y comunista, resume a la perfección los valores que hoy he intentado transmitir desde aquí”.

Klase izaeraz eta langileez, eta zehazki langile espainiarrez, egin zituen adierazpenek langile klasearen indarrak elkartzearen beharra aldarrikatu zuten: “A la gente humilde del país, hayan venido de donde hayan venido. Trabajadores no importa de donde venís, si no a donde vamos” (...) “No, nosotros nunca hemos luchado contra el pueblo español, nosotros hemos luchado contra el estado español, contra su oligarquía y sus elites financieras, militares, políticas, económicas y mediáticas. Ese es el enemigo a combatir, no los trabajadores españoles. Lo que pasa es que a nosotros no nos une con los trabajadores españoles la pertenencia a una misma nación, si no a una misma clase social”.

Positiboa izan zen baita ere Estatu espainiarreko ezkerriari egindako erreferentzia. Azken urteetan Estatu mailan emandako gertaerak eragindako aldaketei helduz “ezker espainiar berriari” eskua luzatu zion Arnaldo Otegik bere modura: “Los independentistas vascos estamos dispuestos a participar en la democratización del Estado, no creemos que sea posible, pero si surge la oportunidad histórica no tenemos ningún inconveniente en participar en ese proceso. Yo digo que ese proce-



so no se va a dar. Con el máximo respeto, yo quiero pedir a esos sectores populares que hoy articulan la nueva izquierda española que sean honestos, nosotros estamos dispuestos a colaborar para democratizar el estado. El día que comprobéis que esa democratización es imposible, sumaros a los independentistas de las naciones del estado para poner en marcha procesos constituyentes en este estado”.

Hala ere, gure iritziz egokiak izan ez ziren ideiak ere planteatu zituen Otegik. Catalunyako “prozesua” eredu bezala jarritz, CUPek Convergenciari emandako babesaren alde posizionatu zen praktikan. Sarritan defendatu dugun bezala, klase arteko kolaborazioa beti izan da langile klasearen eta askapen nazionalaren kalterako, eta une honetan Convergenciaren gobernu kapitalisten aldeko neurriak defendatzen ari da CUPek emandako babesari esker. “Estatu kataluniarra sortzearen truke” eman zion babesa CUPek Carles Puigdemonti, baina burgesia kataluniarraren alderdiak ez du interesik “independentzia” lortzeko, eta beretzat herritarrak engainatzeko maniobra bat besterik ez da izan “prozesu independentista” deitutakoa. Eta ikusten ari gara praktikan zer ari den gertatzen. Zoritxarrez, CUPek Artur Mas eta Carles Puigdemonten aurrekontu prokapitalisten alde bozkatu du eta oso gutxirako balio du gero aurrekontu horiekin ados ez dagoela esateak. Bitartean, “Estatu kataluniarra eraikitzearen” data behin eta berriro atzeratzen du burgesia kataluniarraren alderdiak. Hauek dira klaseko kolaborazioaren ondorioak.

EAJ dela eta, berriz, hitz hauek erabili zituen Otegik: “Badakit batzuek esango digutela, bai baina EAJk ez du nahi, bai baina EAJrekin ez dakit zer, baina gu gara independentistak herri honetan, has gaitezen gu egiten bide hori, eta gero etorriko dira edo ez dira etorriko, baina goazen behingoz martxan jartzera prozesu independentista”. Bestelako errealitatea ikusten ari gara, ordea. EH Bilduko zuzendaritza behin eta berriro ari zaio zuzentzen EAJri “indarrak elkartzeko”, eta horren frogara azkenaldian bien artean sinatutako akordioak, besteak beste, Udal Legea eta EUDLeko akordioa. Azken hau dela eta, EAJko zuzendaritzako Koldo Mediavillak adierazi du lau urte egon direla bi aldeak negoziatzen. Udale-



txe Legeari buruz, EH Bilduk defendatu du transparentziaren eta herritarren parte hartzearen mesedetan izango dela. Transparentzia eta herritarren parte hartzea kapitalisten interesak defendatzeko dagoen EA-Jren eskutik?

Autodeterminazio eskubidea defendatzeaz gain, “Estatu duina” izateko eskubidea defendatzea ere aldarrikatu zuen Otegik. Honek kapitalismoarekin bukatzea eta gizarte sozialista bat eraikitzea esan nahi badu gu ados gaude. Baina, gure ustez, gauzei bere izenez deitzea da egokiena, eta sozialismoaz ari bagara dei diezaiozun sozialismoa. Beharrezkoa da langile klaseari, gazteriarri eta sektore zapalduen kapitalismoaren aurkako benetako alternatiba zein den garbi esatea.

Eskubide demokratikoak eta sozialismoa

Arnaldo Otegi ezker abertzalearen eta Sortuko oinarri sozialaren erreferente garrantzitsua da. Behin baino gehiagotan kartzela sufritu duen politikari karismatikoa da eta hori agerian geratu zen Belodromoan. Zalan-tzarik gabe, bere kaleratzeak ikusmin eta ilusio asko sortu du euskal gizarteko zati handi batean.

ETAren ekintza armatua egokia ez zela onartzeko eta gai hori eztabaidara eramateko ausardia izan zuen Otegik, ezker abertzalearentzat oso gai politiko delikatu baitzen. Dena dela, orain, beharrezkoa da esperientziatik ondorio gehiago ateratzen jarraitzea. Gure iritziz, erabat beharrezkoa da autodeterminazio eskubidearen al-

deko borroka sozialismoaren aldeko borrokarekin uztartzea. Erregimen kapitalistaren aurkako borrokarekin, sistema honekin amaitzeko langile klasearen eta zapaldu guztien indarrak elkartuz, posible da askapen nazionalaren aldeko borrokari ekitea.

Euskal gatazka edo Catalunyako eta Eskoziako auziak ez dira konponduko “negoziaketa mahai” batean eta gaur egungo sisteman. Zapalkuntza nazionalak eta klaseko zapalkuntzak ez dute irtenbiderik aurkituko hau sortzen duten arrazoiek existitzen jarraitzen badute. Estatu espainiarretik eta EAJtik etorkizunean etor daitezkeen “bake” eskaintzek helburu garbia izango dute: Euskal Herriko langileak eta zapalduak engainatu eta garaitu askatasun nazionalaren eta sozialaren aldeko borroka suntsitzeko.

Arnaldo Otegik, behin baino gehiagotan bere burua marxistatzat aurkeztu duenak (espetxetik atera eta bere lehenengo hitzetan beste behin), aukera eta ardura handia du ezker abertzalea masa borrokaren eta programa iraultzailearen defentsaren bidetik bultzatzeko. Eskubide demokratikoen eta autodeterminazio eskubidearen defentsa ezberdintasun nazionalen ginetiko langile klasearen eta zapalduen batasunarekin elkartuko duen alternatiba behar dugu, kapitalista handien boterearekin, beren monopolioekin eta beren instituzioekin amaitzeko. Sozialismoaren aldeko borrokaren programa honek mugimenduan jar ditzake beharrezkoak diren indar sozialak Euskal Herriko eta Europako herri guztietako zapalkuntza nazionalarekin bukatzeko.

Estatu espainiarra: PSOE eta eskuinaren arteko loturak

Ondorio sakonak izan ditu abenduaren zoko hauteskundeetan sortutako krisi politikoak. Rajoyk inbestidurara joateari uko egin ondoren, PSOEko Pedro Sanchezek adierazi zuen bere saiakera egingo zuela eta gobernu osatzeko negoziaketak hasiko zituela. Ez ziren gutxi bere hitza beteko zuela eta eskuinarekin akordiorik ez zuela egingo esan zutenak. Denborak argi erakutsi du, ordea, errealtatea oso bestelako izango zela.

IBON ARTOLA

Egun gutxiren buruan, Pedro Sanchezek Ciudadanosekin egindako akordio lotsagarria iragarri zuen. Azken finean, PPren murrizketa sozial eta herstura plan berberak aplikatzen jarraitzeko presuntasun osoa erakusten zuen hitzarmen honek.

Akordio honen ondoren, martxoaren 4an, izan zen Pedro Sanchezen bigarren inbestidura saioa. PSOEko hautagaia gutxiengoan geratu zen presidente izateko aukera galduz. Ahal Duguk emandako ezezkoak eta Pablo Iglesiasen eztabaidan egindako diskurtsoak hautsak harrotu zituen. Eskuin frankistaren eta Ibex 35aren ordezkarri izateaz akusatatu zituen PP eta Ciudadanos, eta PSOEko agintariak botere handien zerbitzura zeudela azaldu zuen Felipe Gonzalez eta GALEn harteko lotura ere gogoratuz. Ahal Duguren aurkako kanpaina gogorra piztu zuen honek.

Pablo Iglesiasen alderdia PPekin aliatu izatearen akusazio zinikoa erabiltzen hasi zen Pedro Sanchez. Argudio makurrenak erabiliz, berari ezezkoa emateak Rajoyren jarraipena suposatu zuela adierazi zuen. Baina eskuinarekin akordiora iristen ari zena Pe-

dro Sanchez bera zen. Rajoyren aurka PSOEko agintariak erabilitako hitzak itxurakeria besterik ez ziren izan. Ciudadanosekin akordioa sinatuz Pedro Sanchezen alderdiaren helburua gero eta garbiago geratu zen: PP boterean mantendu koalizio handiaren bitartez. Eta gainera Ahal Dugu trizio horretan inplikatu nahi zuten!

Alternatiba ez zen, eta ez da, PSOEk eta PPren "gazteriak" (horrela izendatu zuen Pedro Sanchezek Ciudadanos hauteskunde kanpaina) osatutako "aldaketarako" gobernu edo PPren jarraipena. Hasieratik aukera bakarrak murrizketa eta kontrarreforma politikekin hautsiko

zukeen benetako ezkerreko gobernu edo bankaren eta enpresa handien zerbitzura jarraituko zukeen gobernu ziren. Eta garbi dago PSOEko agintariak bigarren aukeraren aldeko apustua egin dutela.

Abenduaren 20an izandako hauteskunde emaitzen ondorioz, ezkerreko gobernu bat sortzeko aukerarik ez dagoela esan zuen Pedro Sanchezek. Baina argudio hau arrazoi gehiagorekin erabil zitekeen PSOE eta Ciudadanosen akordioaren aurka. Aitzakia hau trikimailu bat gehiago besterik ez zen ezkerreko gobernu bat sortzearen aurka erabiltzeko. Ezkerreko gobernu bat sortzeko babes parlamentario nahikoa lortzerik izango ez bazen ere bide hori jorratzea zen egokiena hauteskunde arreratuak prestatzeko. Baina agerian geratu den moduan, dirudienez PSOEko zuzendaritzak (bere historiako emaitza txarrenak eskuratu arren) Grezian PASOK alderdi sozialdemokratak egindako bidea hartu nahi du eta bere helburu nagusia, gai nontzeko guztiaren gainetik, siste-



ma kapitalistaren eta burgesiaren zerbitzura egotea da.

PSOE eta Ciudadanosen akordioa

Pedro Sanchez eta Albert Riveraren alderdiek sinatutako akordioak ez zuen ezer aurrerakoitik. PPk inposatutako lan erreforma, LOMCE, mozal legea eta murrizketa sozialak bezalako neurriak ez ziren ezabatzen. Lan erreformaren modifikazioari buruzko zerbait agertu arren, langileen aurkako neurri garrantzitsuenak mantendu egingo ziratekeen eta gainera kontratazioa eta kaleratzeetako indemnitazioen baldintzek okerre-ra joko zuket. Osasun publikoari dagokionez, ez zegoen inolako aipamenik etorkizunean egon daitezkeen edo martxan dauden pribatizazioei aurre egiteari buruz, ezta kaleratutako milaka mediku kontratatzeari edo osasun aurrekontuetatik ezabatu diren milaka milioi euro berreskuratzeari buruz ere. Are lotsagarriagoa da egoera irakaskuntza publikoari dagokionez: ez zegoen inolako erreferentziarik LOMCE edo 3+2 ezabatzeari, kaleratutako milaka irakasle kontratatzeari edo hezkuntza aurrekontuek jasandako murrizketak atzera botatzeari buruz; eta, noski, hitz bat bera ere ez bekak hobetzeari edo tasa unibertsitarioak murrizteari buruz ere. Gutxieneko soldatari dagokionez, berriz, %1eko igoera proposatzen zen, PPk azken urtean egingako berdina. Euskal Herriko, Catalunyako eta Galizako auzi nazionalari dagokionez, “Españaren batasunaren” alde egiten zen autodeterminazio eskubideari bide guztiak itsi nahirik. Honen guztiak erakusten du PPk azken urteetan erabilitako errezeta berberak dituela akordioak.

PP akordioaren aurka

Rajoyren alderdia Pedro Sanchezen inbestiduraren aurka posizionatzeak ez zion eman honi izaera aurrerakoia. PPren ezezkoaren arrazoiek ez zuten zerikusirik PSOE eta Ciudadanosen akordioa edukiarekin, Rajoyren alderdiaren aparatuko politikoaren interesekin baizik. Ustelkeria kasuek eta beste hainbat arazoz inguratuta dauden honetan auzi horrek ere bere garrantzia du. Horregatik, ezin da baztertu PPk hauteskunde aurreratuak arte egoera behartzea, bitartean



aurpegi garbiketa moduko bat egiteko margena izanez, PPren nolabaiteko birfundaketa bat aurkezteko eta Rajoy bezain “erreta” ez dagoen hautagai baten alde egiteko.

Hala ere, kapitalista espainiarren eta europarren (Euskal Herriko edo Catalunyakoak barne) presioak handiak dira PPren, PSOEren eta Ciudadanosen arteko koalizio handia sortzeko. Burgesiak ez ditu nahi hauteskunde aurreratuak, ondo baitaki hauteskunde horietatik Ahal Dugu eta ezkerreko gainontzeko alderdiak are indartuago atera daitezkeela. Horregatik, Pedro Sanchezen inbestiduraren porrotaren ondoren, ahalegin guztiak koalizio handiaren gobernua osatzeko bidean jarri dira.

Pedro Sanchezek martxoan presidente izatea lortu ez zuen arren, PSOE eta Ciudadanosen akordioaren oinarritzko puntuak izan dira hurrengo asteetako negoziaketan funtsa. Albert Riverak PPri behin eta berriro egindako gonbidapenak erakutsi dute zein den burgesiak bultzatzen duen bidea. Rajoy eta beste hainbat agintari kentzeaz ere hainbat adierazpen egin dira urte honetan. Honen helburua PP akordioa gerturatzea eta hiruen arteko adostasuna justifikatzea da gobernagarritasunaren eta arduren izenean. Hori dela eta, oso posible da kapitalistek figura “independente” bat aurkeztea presidentetzarako, Albert Rivera bera barne.

Egoera oso aldakorra da, eta klase dominatzaileak bere beharrean ara-

berako gobernua osatzea lortu eta hauteskunde berriak deitzea saihes- tu arren, egonkortasuna lortzeki oso urrun egongo litzateke. Lehenago edo beranduago, mobilizazio sozial garrantzitsuak izango lirateke gobernu horren politiken aurka.

Ahal Dugu eta kaleetako mobilizazioa

Baikorra izan zen Pablo Iglesiasen alderdiak Pedro Sanchezen traizioaren aurrean hartutako jarrera. Lehen-dabizi PSOE, IU eta Compromise- kin osatzen zuten negoziaketa mahaitik altxa zen. Denborak erakutsi du negoziaketa hau fartsa hutsa zela, PSOEko zuzendaritzaren helburu nagusia eskuinarekin akordioa iris- tea zelako.

Hainbat adierazpen positibo ere egin zituen Madrilgo Kongresuan Pablo Iglesiasen eskuinaren eta Pedro Sanchezen gezurra eta maniobra agerian utziz. Bere interbentzioan botereari buruz hitz egin zuen: “Beraiek PSOE-Ciudadanos-PP koalizio handia eskatu dute. Oligarkiek beldurra diote benetako aldaketari”. Ahal Dugu eta PP zaku berberean sartzeko Pedro Sanchezek erabilitako maniobrari honela erantzun zion: “Rajoy arduratuko lukeena zu gurekin jartzea da, horri dio beldurra oligarkiak... ausartu zaitez, Sanchez jauna, benetako programa aurrerakoi batekin”. Diskurtsoko zatirik esanguratsuenetakoa PSOEren oinarri

sozialari eta bozka emaileei zuzendu zien Pablo Iglesiasek, Pedro Sanchez eta honen taldearen jarrera salatzen: “Lehen PSOEkola izateagatik fusilamentu pelotoietara eramaten zintuzten eta, orain, administrazio kontseiluetara”. Eta Pedro Sanchez zuzenduz honakoa adierazi zuen: “Nik ez dut nire jendea traizionatzen. Hasiarik esan genizun, koalizio handia ala gobernu aurrerakoa. Kontuz ‘Laranja mekanikoarekin’, sozio oso azkarra da. Oligarkien plana irensetera behartuko zaituzte, PPrekin eta ez zara zu buruan egongo. Negoziatu gurekin”. Bukaerarako, Pablo Iglesias PSOEkola fundatzailearen zita utzi zuen: “Herria pozointzen dutenen haserrea merezi izatea ohore bat izan da guretzat”.

Baina salaketa parlamentarioa bakarrik ez da nahikoa; beharrezkoa da ekintzara pasatzea. Ahal Duguk ardura handia dauka, kalera eraman behar du PSOE eta Ciudadanosen akordioaren aurkako jarrera mobilizazio masiboak deituz Estatuko hiri guztietan.

Mobilizazioa oinarritzeko tresna da une politiko honetarako. Madrilgo Kongresuak eman dezakeena, gaur egun duen konposaketarekin, eman du dagoeneko. Bai PP bai Ciudadanos,

eta baita PSOEn aparatua ere, lerro politiko berberean daude. Bruselaren eta botere ekonomiko handien aginduak betetzeko daude, azken urteetako agenda berdinarekin jarraitzeko: gastu sozialen murrizketak, pribatizazioak eta erasoak gure eskubide eta lorpen sozialei. Horregatik, inolako aritmetika parlamentariok ez du aldatuko plan estrategiko hau. Erasoaldia geratzeko modu bakarra herritarren mobilizazio masiboa da, kaleak hartuz eta azken urteetan eskuina paretaren kontra jarri duen errebolta sozialean sakonduz. Azken urteetako mobilizazio soziala izan zen hain zuzen ere abenduaren 20 hauteskundeetako emaitzak eragin zituen PP eta PSOEk azken 40 urteetan osatutako bipartidismoa astinduz.

Ahal Dugu ezin da mugatu oposizio parlamentaria. Azken finean, bera sortu eta indartu zuen horretan oinarritu behar du: masa borroka, M15etik Gamonalera, greba orokorretatik Marea Herritar edo Duintasun Martxetara. Bai, beharrezkoa da berehala eta modu eraginkorrean mobilizaziora pasatzea azken urteetan herri mugimenduak mahai gainean jarritako aldarrikapenen alde borrokatzeko: Lan Erreforma, Mozal Legea edota irakaskuntza publikoko

kontrarreforma frankistak (LOMCE eta 3+2) ezabatzea; etxebizitza eskubidea bermatzea etxe kaleratzeak legez kanporatuz eta alokairu sozialekin osatutako etxebizitzaren parke publikoa osatuz; eta krisitik ateratzea ahalbidetzen duten bizi baldintzak bermatzea herritarrentzat, langabezia laguntzak nabarmen handituz, dependentziako eta osasuneko murrizketa sozialekin amaituz, pobrezia energetikoarekin amaituz (besteak beste, elektririk nazionalizatzea)...

Garbi dago zein den jarraitu beharreko bidea. Esperientziak erakutsi digu dagoeneko. Ikasle Sindikatuak apirilaren 13 eta 14rako deitutako ikasle greba orokorra iniziatiba bikaina izan da, eta eredu bezala hartu behar da. Ikasleek eman dute lehen-dabiziko pausoa. Orain mobilizazioa zabaltzeko garaia da. Beharrezkoa da Ahal Duguk, Marea Herritarrekin, Duintasun Martxarekin, klaseko sindikatuarekin eta nazio zapalduetako ezkerrearekin (Sortu eta CUPekin, besteak beste) kaleak hartzea eta borroka antolatzea benetako aldaketa politikoa eragiteko, inork ez diezaion kendu herritarrei beraiena dena, inork ez diezaion kendu lehenago borroka-rekin lortutakoa. Aldaketa borroka-rekin bakarrik lortuko da.



Apirilaren 13 eta 14ko ikasle greba

Euskal Herria Sozialistak eta Ikasle Sindikatuak apirilaren 13 eta 14rako ateratako eskuorriaren textua duzu honakoa:

Apirilaren 13 eta 14ean denok grebara eta manifestazioetara! LOMCE eta 3+2 berehala kendu!

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

A 20ko hauteskundeak golpe gogorra izan ziren Alderdi Popularrarentzat. Hezkuntza eta osasun publikoaren defentsan, lan erreformaren eta etxe kaleratzeen aurka, mozal legearen eta ustelkeriaren aurka, kaleetan mobilizatu garen milioika langile eta gazteren ahotsa hautestontzietan ere islatu da. Honek erakusten du borroka dela bide bakarra gehien-goaren interesen aurkako lege eta neurri guzti horiek ezabatzeko.

Hala ere, interes asko daude gauzak aldatu ez daitezen. Ikasle Sindikatutik eta Euskal Herria Sozialistatik, Pedro Sanchez eta PSOE-ren talde negoziatzaileak Ciudadanosekin sinatutako akordioaren aurkako erabateko jarra adierazten dugu. Onartezina da: ez dituzte LOMCE eta 3+2 indargabetuko, ez dute erlijioa ikas-

geletatik ezabatuko, ez dituzte irakaskuntza publikoan murriztutako milaka milioi euro erreperatuko eta ez dituzte Euskal Herrian eta Estatu guztian kaleratutako milaka irakasle kontratatuko. Gainera, akordioak ez ditu jasotzen Batxilergoaren eta Lanbide Heziketaren doakotasuna: oraindik ez dugu ezer ordaintzen, baina batxilergoan ikasten ari garen milioika ikaslerentzako tasa akademikoak inposatzea prestatzen ari direnaren abisu

geletatik ezabatuko, ez dituzte irakaskuntza publikoan murriztutako milaka milioi euro erreperatuko eta ez dituzte Euskal Herrian eta Estatu guztian kaleratutako milaka irakasle kontratatuko. Gainera, akordioak ez ditu jasotzen Batxilergoaren eta Lanbide Heziketaren doakotasuna: oraindik ez dugu ezer ordaintzen, baina batxilergoan ikasten ari garen milioika ikaslerentzako tasa akademikoak inposatzea prestatzen ari direnaren abisu

garbia da. Eskuinak dagoeneko inposatu ditu tasak LHn Estatuko toki batzuetan. Bitartean, hemen, EA-Jren politikaren ondorioak pairatzen ditugu: bere murrizketekin eta LOMCEren aplikazioarekin hezkuntza gutxi batzuen pribilegio bihurtzea eta langile familietatik gatozenontzat eskubide bat ez izatea bilatzen dutenen aldean dagoela erakusten du, eta PPren neurriak eta Pedro Sanchez eta Ciudadanosek idatziz jarri duten akordio lotsagarria konpartitzen ditu.

Kaleetara itzultzen gara! Apirilaren 13 eta 14ean denok grebara!

Gobernatzen duenak gobernatzen duela ere, ez dugu onartuko hezkuntza publikoaren aldeko borroka traizionatzea. Horregatik, apirilaren 13 eta 14ean ikasgelak huster a deitzen irakaskuntza publiko duina, doakoa, demokratikoa eta euskalduna defendatzeko, murrizketarik eta lege frankistarik gabekoa. Ez dago aitzakiarik eskubide hau erasotzeko erabili diren legeak, dekretuak eta murrizketak ez indargabetzeko! LOMCE eta 3+2 kanpora! Beken handitzea eta tasen berehalako murrizketa!

Greba arrakastatsua izan dadin, Ikasle Sindikatutik eta Euskal Herria Sozialistatik ekintza batasunerako deia egiten diegu Ikasle Abertzaleakeko kideei apirilaren 13 eta 14ko grebara gehitu daitezen, eta baita hezkuntza komunitate osoari ere, gurasoei, irakasleei eta ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuiei. Indarrak elkartuz beharrezkoa da hezkuntza publikoaren aldeko borroka bandera gogor altxatzea, garbi utziz etorkizuneko Madrilgo gobernuari, eta baita Gasteizko EA-Jren gobernuari eta Iruñeko Geroa Bairen gobernuari ere, ez dugula urte hauetan borroka egin denak berdin jarraitzeko.

Irakaskuntza publikoa ez da saltzen, defendatu egiten da!



Martxoak 8 eta emakume langilearen borroka

105 urte pasa dira nazioarteko lehenengo emakume langilearen eguna ospatu zenetik. 1910ean proposatu zuen Clara Zetkin komunistak martxoaren 8a izatea emakume langilearen nazioarteko eguna. Kopenhagen egin zuen proposamena Emakume Sozialista Internazionalistek antolatutako II. Konferentzian, eta berdintasun eskubideak eta sufragio unibertsala sustatzea eta indartzea zuen helburu. Urte bete geroago ospatu zen borroka egun hau Alemanian, Austrian, Danimarkan eta Suitzan.

IBAN PEREZ

Gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzeko hamarkada luzez borrokatu den arren, nazioarteko krisi ekonomikoak emakumea egin du, berriro, biktima nagusia. Gainbeheran da goen gizarte kapitalista honetan, gure egunerokotasunean jarraitzen dute indarkeria matxistak, murrizketak eta Elizarekin bat egiten duen eskuinaren ideologiaren ofentsibak.

Murrizketak eta indarkeria matxista

Azken lau urteetan PPren gobernuak gogor eraso ditu langile familiak eta, bereziki, emakumearen bizitzan eragiten duten aspektuek: haur-eskolen pribatizazioa, jantokietako bekak kentzea, lan erreformak onartzea eta beste hainbat eta hainbat neurri. PPk praktikan menpekotasun legea ezabatu duenez, funtsean langile familiarako emakumeak dira sektore publikoak bete beharko lituzkeen lanak egiten dituztenak. 2011z geroztik Berdintasun Programaren aurrekontua % 43 murriztu da, eta Genero Indarkeriaren prebentzioarena %17.

Hori gutxi ez eta 2016ko aurrekontu orokorrak urrutiago doaz zenbait alderditan. Menpekotasun arretari dagokionez, aurreikusitako gastua 3 eurokoa izango da pertsonako eta eguneko! Hau da emakume bat bere bikote edo bikote ohiak hiltzen duenean tipula negarra egiten duen eskuinaren ondare politikoa.

Emakume langileen aurkako eraso eta jipoiak areagotu egin dira herostura eta murrizketa politikek eragin duten degradazio sozialaren ondorioz. Datuek horrela erakusten dute: 2015 urtea amesgaizto izan zen, 64 emakume erail zituzten Estatu osoan. Lantokietan berriz asko hazi egin dira eraso eta abusu sexualengatik izandako salaketak. Datu ofizialik egon ez arren, Emakumearen Institutuen arabera, 2015ean Estatu espainiarreko emakumeen %15ak jasan zuen sexu-jazarpena bere lantokian, eta %10ak Europar Batasunean. Estimazio batzuen arabera, %95ak ez du salatu nahi beren lanpostua galtzeko beldurra dutelako.

Genero indarkeriaren programa %10,9 murriztu da 2009 urtekoarekin alderatuz gero, CISen makro inkesta baten arabera erasoan da-

tuak ikaragarriak diren arren: bi milioi emakumek jasan dute eraso fisiko edo ekonomikoa, eta 4 milioi eraso psikologikoa. Hori da krisiak milioika emakumeei bere egunerokotasunean erakusten dien benetako aurpegia: babes gutxiago eta mendekotasun gehiago. Genero indarkerian harrapatuta amaitzeko errezeta ezin hobea. Zalantzarik gabe, emakumeen independentzia ekonomikoa beharrezkoa da benetako berdintasuna lortzeko. Ekonomia justurik gabe, ezinezkoa da justizia soziala, eta independentzia ekonomikoa ez dagoen bitartean, emakumeen berdintasunaz hitz egitea utopia bat da.

Emakume langilearen zapalkuntza bikoitza kapitalismoan

Sistema kapitalistan emakumeak zapalkuntza bikoitza jasaten du: klasekoa eta generokoa. Emakumeek are baldintza gogorragoetan sufritzen dituzte gero eta orokorragoak diren prekarietatea, behin-behinekotasuna, soldata baxuak eta eskubide murrizketak. Lantokietan egoerarik okerrera jasaten dute, eta orokorrean kaleratzen dituzten lehenak dira. PP legealdian, hirukoiztu egin da genero arteko desberdintasuna kaleratzeetan!





Emakumeen lanpostuak zerbitzuen sektorean dira nagusi, urteko batez besteko soldata txikiagoarekin, zeren behin-behinekotasuna eta lan partzialtasuna oso altua denez soldatek beheranzko joera gehiago dute. Azken txostenen arabera, bi milioi emakumeren soldatak pobrezia-aren mugaren azpitik daude. Soldata desberdintasuna handitu egin da krisia sakondu den heinean. Batez beste, emakumeek %32 gutxiago kobratzen dute gizonen lan berdina egiteagatik (urtean 6.000 € gutxiago). 2010etik 2013ra desberdintasun hori 2,5 puntu hazi da. Ondorioak izugarriak dira maila guztietan. Pentsioak, adibidez, %38 txikiagoak dira gizonekikoekin alderatuz gero.

Murrizketa politikaz gain, PPk etenik gabeko gatazka ideologikoa eraman du aurrera apezpikuen batzarrarekin aliatuta. Emakumea babesik gabe uztera eta zapalkuntza gehiagora bultzatu nahi zuen abortuaren legearen erreforma atzerakoia izan da adibide argietako bat, tartean 18 urtez azpiko emakume gazteei abortatzeko eskubide askea ere kendu nahirik.

Ikastetxeetan sexu heziketa ukatu den bitartean, bai eraso matxistak

saihesteko eta bai emakumeek ama noiz eta nola izan nahi duten beren kabuz erabakitzekei gai izateko, LOMCEa bezalako neurriak onartu dira. Lege honek, besteak beste, sexu arteko bereizketa duten zentroak diruz laguntzen ditu eta, aldi berean, emakumeentzat zuzendutako "etxe-ko lanetarako eta eraikinen garbiketarako" Formakuntza Zikloa proposatzen du. Emakumeak frankismoan zeukaten toki berera bidali nahi dituzte, etxeetako lau pareten artera, familiako "sostengu" izatera, askatasun eta independentziarik gabe. Azken finean, ideologia eskuindar basati honen helburu nagusia emakumeari lan egiteko, antolatzekei eta edozein norbanako bezala garatzeko eskubidea eragozteka da.

Gaur atzo bezala, borroka da bide bakarra

Emakume belaunaldi oso bat frankismoaren aurkako borrokaren buruan jarri zen bezala, azken urteetan izandako eztanda sozialeko mobilizazioetan emakumea borrokako protagonista izan da: krisia hasi zenetik emakumeen parte hartzea oso handia izan da greba orokorretan, lan gatazke-

tan, hezkuntza publikoaren aurkako LOMCE eta 3+2 neurrien kontrako mobilizazioetan, etxe-gabetzeen aurkako borroka eta PAHren sorreran, Ruiz Gallardon ministroaren dimisioa eragin zuen honen Abortu Legearen aurkako manifestazioetan... Eta emakumeen parte hartzea handia bakarrik ez, kasu askotan emakumeen parte hartzea eta borroka maila gizonezkoena baino altuagoa izan da, bereziki emakume gazteena. Lehenago ere historiak erakutsi du, zapalkuntza bikoitza jasaten duen heinean, emakumea borrokara lotzen denean sektore borrokalarientakoaan bihurtzen dela. Eta beste behin, goran aipatutako borrokekin ikusi da eraginkorrena mugimenduaren antolakuntza eta kaleetan borrokatzea direla emakumeen eta denon eskubideak defendatzeko.

Sistema honek gure klaseari orokorrean eta, bereziki, emakume langileei eskaintzen dienaren aurrean, beharrezkoa da gizartea eraldatzeko eta gehiengoaren bizi baldintzak hobetzeko borrokatzen dugunok emakumearen askatasunaren aldeko aldarria egitea, hau da, emakume langilearen bandera borrokalaria eta antikapitalista altxatzea.

1976ko martxoak 3: sarraskiaren 40. urteurrena eta Gasteizko langile mugimenduaren borroka eredugarria

Pasa den martxoaren 3an 40 urte bete ziren erregimen frankistak Gasteizko eta Estatuko gainerako langile mugimenduaren aurka eginiko sarraskitik. Urte horietan langile mugimendua Gerra Zibila galdu ostean frankismoak kendutako eskubide demokratikoen eta bizi baldintza duinen aldeko borroka latzean zebilen. 1976rako erregimena hiltorian zegoen, batez ere industriak pisua zuen hiriguneetako langile klasearen greba oldez inguratutik.

AITZOL ARRIBILAGA

Burgesiak ez zeukan bere burua-
rekiko konfiantza handirik eta,
are gutxiago, Portugalgo Kra-
belinen Iraultzarekin gertatutakoa
ikusi ondoren. Haren lehentasunak
frankismo garaietan lortutako iraba-
ziak toki onean gordetzea eta, edoze-
ren gainetik, kapitalismoa manten-
tzea ziren. Frankismoaren gainbehe-
ra krisi ekonomikoarekin eta klase
arteko borrokaren gorakadarekin ba-
tera etorri zen. Datuak argigarriak
dira: kapital ihesa ikaragarria zen.
1976ko urtarrila eta maiatza bitar-
tean Estatutik 60 mila milioi peze-

ta atera zituzten eta inflazioa %20
ra iritsi zen (ogiarren prezioa %40
igo zen urteko lehen hiruhilekoan);
eta langabezia, 1973 urtean 300 mi-
la pertsonara iristen bazen, 1976an
milioia gainditzen zuen. Greben go-
rakadak langileek beraien indarre-
tan zeukaten konfiantza eta frankis-
moaren aurkako jarrera zuzen eta
irraizak ziren: 1970-72 urteen
artean 846 mila lan-jardunaldi gal-
du ziren greben ondorioz, 1973-75
urteen artean 1,5 milioi eta 1976an
12 milioi baino gehiago. Burgesiaren
eta erregimen frankistaren eraso-
en aurka langile klaseak ausardiaz bo-
rrokatu zuen, baina hiltorian zegoen

erregimenak ez zuen bere burua de-
balde emango.

Plataforma Bateratua

1976 urteko urtarrilean Gastei-
zen gutxi gorabehera 30 enpresatako
langileek grebak hasi zituzten eta be-
raien artean koordinatzen hasi ziren.
Ordezkariek asanbladetan aukera-
tzen zituzten demokratikoki eta al-
darrikapen plataformak bateratuak
planteatu zituzten.. Garai hartan
marxismo iraultzailearen posizioak
defendatzen zituen arabako UGTren
dokumentu batek honela aipatzen di-
tu langileen aldarrikapenak:

“1.- Guztientzat soldata igoera ber-
dina. Puntu hau garrantzitsua zen.
Soldata ehunekotan igotzearen eta
denentzat soldata berdina igotzea-
ren arteko ezberdintasunak txikia
eman dezakeen arren, enpresak lan-
gileak zatitzeko erabiltzen duen politi-
ka da. Ehunekotan igotzeak esan nahi
du soldata baxuagoa dutenek igoera
txikiagoa izango dutela gehien ira-
bazten dutenekin alderatuta. Horre-





la langileen arteko aldea handitu egiten da. Erantzuna borroka hasi baino lehen eman zen: 'bizitza berdin garestitzen da guztiontzat'. 'Denok berdin borrokatzen badugu, onura berdina izan behar dugu guztiok'.

2.- Istripu edo gaixotasunen kasuan soldata errearen %100.

3.- Erretiroa 60 urterekin eta soldata errearekin.

4.- Lan jardunaldiaren murrizketa.

Aldarrikapen hauen negoziaketan aurreko puntuak borrokarekin batera joango ziren zehazten:

- Enpresa batek ere ez du negoziatuko atxilotu bakar bat bada go Gasteizen.

- Enpresa bat bera ere ez da lanera itzuliko kaleraturik badago Gasteizen.

- Ez da negoziatzen asanbladen bidez hautatutako ordezkariekin ez bada eta zuzenean patronalarekin.

Oso garrantzitsua da azpimarraztea langileek nola hartu zuten kontzientzia: lehenik, bakoitzaren lantokiko arazoekin eta ondoren, batzar bateratuen bitartez. Borroka langile guztiena zela ulertu eta borrokarako aurrera pauso kualitatiboa izango ziren aldarrikapenak onartu zituzten.

Hau faktore erabakigarria izan zen: dena batzarren bidez erabakitzen zen. Hasieran, enpresarekin negoziatzen zuten Batzorde Ordezkatzai-

leak aukeratzen zuten lantokietan eta ondoren borrokan zeuden gainerako enprekin koordinatuz. Hau izan zen Gasteizko mugimenduaren ezaugarri nagusia: borrokan zeuden langileek hiriko gazte, emakume eta auzoekin batera, era koordinatu batean sortu zuten langile boterearen estruktura, grebak, manifestazioak, erresistentzia kutxak, atxilotuen aldeko laguntza, etab. antolatuz eta zuzenduz.

Sarraskia

1976ko martxoaren 3an, Gasteizko langile klase osoak babestu zuen borrokan zeuden lantokietako Batzorde Ordezkatzaileek deitutako greba. Arratsaldeko bostetan San Frantzisko elizan batzar nagusia antolatu zuten. Ordu bete lehenago eliza gainezka zegoen, hiria erabat gelditu eta barrikadez josia. Langile auzo guztietako milaka gazte, emakume eta langilek beren etxeak utzi zituzten hitzordu berdinerara joateko.

Polizia, Barne Ministerioaren agindua jarraituz, elizaren kanpoaldean gelditu zen eta errepresioa prestatu zuen. Berehala hasi zen polizia elizako kristalak hautsi eta gasezko poteak barrura botatzen. Jendea lurrera bota zen eta babesten saiatu zen. Kanpoaldean albistea berehala

zabaldutako zen: poliziak eliza inguratu, gas poteak bota eta milaka langile itoko ditu. Jendea bat-batean antolatu zen bere kideak askatzeko. Barruan gehiago jasan ezin zutenak erdi itota ateratzen hasi ziren. Poliziak pasilo bat antolatua zeukan, eta atera zirenak borraz, kulataz eta, azkenik, tiroka hartu zituen. Ondorioz, ikaragarriko sarraskia eragin zuen: bost langile erail eta ehun zauritu baino gehiago utzi zituen.

Patronala, Gobernua, polizia eta armada elkar zoriontzen ari ziren bitartean, langile klaseak ikasgaiak atera zituen gertakari haietatik. Langileen aldarrikapen gehienak onartuak izan ziren eta urte haietan Euskal Herriko zein Estatuko langile mugimenduak azken 40 urteetan izandako soldata igoerarik handiena lortu zuen.

Garrantzitsua da Gasteizko langileen borroka emandako ikasgaiak aztertzea. Langile klaseak esperientziatik ikasten du eta orain burgesiaren lehenago lortutako eskubide eta baldintza guztiak kendu nahi dizkigu. Zapaltzen eta esplotatzen gaituen sistema honekin amaitzen ez dugun bitartean, lorpen guztiak borrokaz soilik mantendu daitezke, kapitalistak beti saiaturiko direlako era batera edo bestera dena kentzen.

Bake prozesua Sirian?

Urtea hasi zenetik Estatu Batuetako gobernuak Sirian aldi baterako su etena bultzatzera beharturik ikusi zuen bere burua, hiriak eta azpiegiturak suntsitu ondoren, hildakoak ehun milaka direnean eta milioika errefuxiatu kanporatu dituztenean. Zergatik? Hegazkin errusiarren bonbardaketei esker gobernu siriarraren tropak aurrera egiten ari zirelako. Dena den, egonkortu daiteke bakea Sirian? Posible al da gerrarekin eta Ekialde Hurbileko suntsiketarekin amaitzea?

IKER OTERMIN

Su etena otsailaren 27an jarri zen indarrean eta bi aste iraun zituen. Alde batetik, armada siriarri eta bere aliatu errusiarrei, iran-darrei eta libanoarrei (Hezbollahi) eragin zien eta, bestetik, “terrorista” gisa kalifikatu gabe dauden milizia jihadistetik —Daeshetik— eta horren gertuko erakundeetatik kanpo geratzean. Era berean, Al Assad presidenteak “hauteskunde legegileak” iragarri zituen apirilaren 13rako. Martxoaren amaieran “bake prozesuari” buruz hitz egiteko bildu ziren John Kerry AEBtako Estatu idazkaria eta Vladimir Putin Errusiako presidentea. Guzti honek broma txar bat dirudi beste ezer baino gehiago, gerrak suntsituriko herrialde batean. Aurrekariak eta jokoan dauden benetako interesak kontuan hartzen baditugu, begi bistakoa da “erasoak geratze hau” porrote-ra kondenatua dagoela hasieratik. Azken batean, Estatu Batuek denbora irabazteko eta inizatiba berreskuratzeko asmoarekin gauzatzen ari diren estrategia bat da, beren interesentzako konplikatu den momentu honetan. Eskualdean duen ahultasuna erakusten du, talde jihadistien gaineko kontrola galdu du eta talde hauen sostengua izan diren bere aliatu zaharrek —Turkiak eta Saudi Arabiak— geroz eta agenda ezberdinagoak dituzte. Bitartean, Errusia ere gerran sartu da eta honek guztiak bultzatu du Obamaren administrazioa estrategia aldatu behar izatera.

Bere planteamendua orain Siria-rentzat “trantsizio” bat negoziatzea da, Al Assad boteretik ateratzea ezinbesteko baldintza bezala jarri gabe. Bitartean, su etenarekin eta “laguntza humanitarioaren” aitzakiarekin, erregimen siriarrak eta honen aliatuek lurralde berreskuratzen jarraitzea galarazi nahi dute. Horrela, AEBek beren posizioa gehiago indartzea biltzen dute balizko negoziazio baterako prestatuz. Aldi berean, Iranekin aliantza bat egiten saiatzen ari dira, “Itun Nuklearra” deitutakoaren akordioak erakusten duen bezala. Estatu persiarrak zituen santzioak kentzearen truke, AEBek Iran bere helburue-

tara erakartzea nahi dute eta honekin batera Ekialde Hurbileko egonkortasuna lortzera konprometitzea.

Errusia eta Iranek beren posizioak indartu dituzte eta Txinak arretaz begiratzen die beren interesei

Estatubatuarren arazoak aprobetxatuz, Errusia faktore klabe bihurtu da Siriako egoeran. Hala ere, bere interesak posizio geoestrategikoa mantentzea edo Tartuseko hirian duen ontziteri basea babestea baino haragato doaz. Putinek nazioarteko harremanetan lehen mailako postua berreskuratu nahi du Errusiarentzat, Ukrainarekin duen gatazkan ere irteera mesedegarri bat bilatzeko eta bere egoera ekonomiko konplikatu baretzeko. Iran ere, oraingoz, Ekialde Hurbilean eta bereziki Sirian gertatzen ari denaren onuradunetako bat da. AEBkin egin duen itunak eremuko potentzia gisa duen papera indartzea eta zigor internazionalekin amaitzea baimentzen dio. Zigor horiek oso gogor jotzen ari ziren bertako ekonomia.





Errusia eta Iran prest daude negoziatzeko, beti ere azken emaitzak ez baditu beren interesak arriskuan jartzen eta eremuan funtsezko papera izaten jarraitzen badute. Baina, noski, negozio beltz honetan, Errusiak eta Iranek ez dute arazo berezirik Al Assaden erregimenak jarraitzearekin; behar izanez gero sakrifikatuko bailukete. Etorkizunean zer gertatuko den jakitea ez da erraza: Sirian eta Ekialde Hurbilean egoera kontraesanek beterik dago, eta ezin dira baztertu lerrokatze berriak. Errusiarren eta irandarren arteko kolaborazioa funtsean koiunturala da eta, momentuz, dituzten interesei erantzuten die. Iranek AEBekin harremanak estutzen jarraitzeko asmoa du, eta Errusiak, berriz, aiatolen arerio handienetakoarekin erlazioak zabaldu nahi ditu, Saudi Arabiarekin esate baterako. Duela gutxi, petrolioaren ekoizpena kontrolatzeko akordio bat sinatu dute. Gainera, bi potentzia hauen arteko areriotasunak Iraken eta Sobietar Batasunekoak izan ziren errepublika asiarretan ere badaude. Bertan gerrak izan dira lehengaien eta ibilbide komertzialen eremuen kontrolagatik.

Txinari dagokionez, interes inperialista argiak ditu Ekialde Hurbilean: Asiako hego-ekialdea Europarekin elkartuko duen bide komertzial handi bat eraiki nahi du, gatazkan dagoen eremutik igarotzen dena. Bertako baliabide energetikoak ere behar ditu. Putinek azken hilabeteetan emandako pauso bat bera ere ezin uler daiteke inperialista txinatarrek emandako babesa kontuan hartu gabe. Aliantzak indartu nahi dituzte eremu hartan mendebaldeko inperialismoaren eta, batez ere, estatubatuarren kalterako. Orain dela gutxi Xi Jinping presidenteak Saudi Arabiara, Iranera eta Egiptora egin dituen bisitak gogorarazi nahi zuen Txina faktore klabea dela Sirian lor daitekeen edozein akordiotarako.

Saudi Arabiaren eta Turkiaren agenda

Oligarkia turkiarrak eta saudiak izan dira Sirian indar jihadisten bultzatzaile handienak, Daesh-enak barne. Horien bidez Al Assaden erregimena eraistea espero zuten. Modu honetan, saudiek Iran kolpatuko zuketene bere aliatu nagusia suntsituz; eta Tur-

kiak, berriz, Siria bere eraginpean erortzea lortuko zukeen, eta honela errazago zapalduko zituzkeen Rojavako eremuan bizi eta borroka egiten duten kurduak. Errusia taula gainean Iran eta Hezbolarekin agertzeak aukera hori ezeztatu du, eta armada siriarrari geroz eta lur eremu gehiago berreskuratzea baimendu dio. Horrela, arazo larrian jarri ditu bi herrialdeenak diren aliatuak, milizia jihadistak alegia.

Guda zelaian eta arlo diplomatikoan izandako korrelazio indarren aldaketak, milizia hauek negoziazioei boikota egitera bultzatu ditu, eta indar militar turkiarren eta saudien lurreko inbasioa eskatzera iritsi dira. Ezin ahaztu daiteke armistizio berri hori noiz iritsi zen. Munichen, otsailaren 12an “bake negoziatioak” hasi zirenean, tropa turkiarrek Siriako milizia kurduak erasotu zituztena, Turkiak herrialdearen zatiketa iradokitzen ari zenean. AEBak adituak dira zatiketa mota hauetan, Irakeko, Afganistango edo Libiako adibideek erakuste duten bezala.

Nahiz eta Saudi Arabiako erregimenak, Turkiakoak bezala, inbasiorako prestatu direnik ukatzen duten, bistakoa da beren kalkuluetan ez dutela aukera hau baztertzen. Turkiaren erasoak Daeshen aurka borrokatzeko aitzakia faltsuarekin jantzi bazuten ere, armada siriarraren eta bere aliatuen aurrerapenak gertatzea zuen helburu; eta baita Rojavako kurduen aurkako ofentsiba zabaltzeko ere, nahiz eta hauek izan diren Daeshen aurka benetan modu eraginkorrean borrokatu duten bakarrak. Horrelako ekintza batek gatazka armatu are zabalago baten hasiera ekar lezake eta ezinezkoa da zein ondorio izango lituzkeen aurreikustea.

Potentzia inperialistek urteak daramatzate taula siriarraren borrokan, eta Ekialde Hurbil guztia egoera kaotiko eta konponezin batera eraman dute. Hemendik onura gehien ateratzen duena Estatu Islamiarra da, eta honen aurka ez du benetan borrokatzen inongo potentziak. Gerra honen sarraskia sufritu duten herritarrek ezin dute ezer onik espero beren herrialdea basakerian ito duten lapurrak iragarritako “baketik”. Herriak nahi duen bakea kapitalismoarekin eta botere inperialistarekin amaituz bakarrik izango da posible.

Udaberri Arabiarraren bosgarren urteurrena

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

altxamenduaren garra pizturik jarraitzen du eta aukera aurkitzen duenean adierazi egiten da.

Mugimendu iraultzailea

Isilpean gorde du prentsa burgesak Mubarak eta Ben Ali erortzea erraztu zuen arrazoi nagusia: langile klasearen borroka. Egiptoko langileen borroka energiaz bete egon zen; hainbat fabrika okupatu eta batzordeak sortu zituzten; areago, erabakigarria izan zen Mubarak boteretik bota arte antolatu zuten greba orokor mugagabea. Une hartan, arrisku bizia ikusi zuten Egiptoko burgesiak, inperialismo estatubatuarra eta kupula militarra, eta diktadore zaharra sakrifikatzea erabaki zuten guztia ez galtzeko. Hori egin arren, nekez lortu zuten egoera kontrolatzea gobernu egonkor batekin, “kale arabiarra” deitzen duten horren indarra zela eta.

Tunisian gazte langabeen altxamendua izan zen, eta hauek Tunisiako Langileen Batasun Orokorrean (TLBO) antolatuko langile klasearen sektore nagusia erakarri zuten. Hainbat herritan izandako altxamendu espontaneoek bidea aurkitu zuten langile aurreratuenek antolatutako ehunka sekzio sindikaletan. TLBOko zuzendaritza ustela izan arren, burgesiak zailtasun ugari izan zituen egoera kontrolatu eta gobernu egonkorra osatzeko, baita Ben Ali erori ondoren ere. Hain zuzen ere, TLBOko agintariak eta estalinismoaren tradizioetik zetozen beste erakundeetako agintariak erabili zituzten, ahal zen moduan, batasun nazionalako gobernu osatzeko. Helburua: masen haserre geldiaraztea eta sekzio sindikalen eta herri komiteen ekimenez nonahi sortzen ari ziren langile boterearen enbrioiak suntsitzea.

Libian masiboki sortu ziren batzorde iraultzaile hauek eta Gadafiren estatu bonapartistaren deskonposizioa eragin zuten. Bengasin hasi zen altxamendu armatua bolbora bezala zabaltzen herrialde osoan, harriz eta Tripolira heldu arte. Estalinismotik datozen batzuek Gadafiren erregimena sozialismoaren eredutzat hartu arren, aspaldi ari zen potentzia

inperialistekin aliantzak egiten eta herrialdeko aberastasun naturalak multinazional italiar, espainiar eta frantziarrei ematen. Gadafi eta bere ingurukoak asko aldatu ziren gobernuaren lehen urteetako erreforma eta nazionalizazioen garaitik. Garai hartan Sobietar Batasunaren babesa izan zuen. Baina denborak aurrera egin ahala bere politika eskuine-rantz joan zen, Mendebaldeko jabe berrien morroi megalomano eta ustel bihurtuz, eta bere herritarren aurrean babesa galduz.

Mugimendua, berehala, milizien gerra iraultzaile moduan garatu zen. Milizia horiek asanbladetatik eta herri komiteetatik sortu ziren, baina bertako agintariak inperialismoaren laguntza pozoitua onartu zuten. Horrela, bere programaren izaera burgesxikia eta desorientatua erakustez gain, borrokaren bilakabidea eta ondorioa bera aldatu zuten. Inperialismoaren esku hartzearen helburua ez zen kausa demokratiko edo humanitarioa. Gogoratu behar dugu marxistok Italiaren, Britainia Handiaren eta Estatu frantziarraren airezko sarraldien aurka posizionatu ginela, baina sozialdemokraziak, estalinista ohi askok eta bere burua “antikapitalistatzat” zuten batzuek txalotu egin zituztela. Aitzakiatzat jartzen zuten helburua Gadafiren armada mertzenarioak setiatutako hirietako egoera baretzea zela.

Esku hartze inperialistaren ondorioak latzak izan ziren: Gadafi boteretik botatzea erraztu bazuen ere, herri altxamenduak hasieran zuen izaera sozialista ezabatu zuen, eta herrialdea zatitu eta zati horiek kontrolatzen dituzten gerra-gizonen loraldia eragin zuen. Kontrairaultzak kaosean murgildu zuen Libia.

Iraultzak masak batzen ditu, kontrairaultzak zatitu

Bada isilarazi den beste gai bat Udaberri Arabiarrarekin lotua. Mugimendu hark langile eta gazteen indarrak batu zituen, etnia edo erlijioen gainerik. Munduko eremu horretan zatiketa etnikoak, erlijiosoak eta bestelakoak oso handiak dira inperialismoak urteetan egindako lan zikinaren ondo-

rioz, “zatitu eta garaituko duzu” politika aplikatu baitu. Hala ere, ororen gainerik, milioika pertsona manifestatu ziren elkartuta etorkizun duin baten alde: musulmanak eta kristau kop-toak, suniak eta xiitak, arabiarra eta bereberrak, gizon eta emakumeak... Iraken ere mobilizazioek suniak, xiitak eta kurduak batu zituzten. Sirian mugimenduak hastapenetan ez zuen izaera sektariorik, eta suniak, alaiak, kristauak eta ateoak elkartu ziren. Areago, Udaberri Arabiarrak masa israeldarrak estimulatzeko indarra ere izan zuen, eta beren kanpamenduari *Tahrir plaza* izena eman zioten eta “ibil zaitez egiptoar bat bezala” leloa hedatu zuten.

Desberdintasun erlijioso eta etnikoen gainerik sortutako zapalduen batasun hori arrisku larria zen inperialismoarentzat (are gehiago Israelen kasuan). Hori dela eta, botere eta diru guztia erabili zuten zatiketa berriak eragiteko eta, batez ere Sirian, milizia jihadistak sortzeko, lehenago Iraken eta Afganistanen egin zuen bezala.

Tunisiako eta Egiptoko esperientziatik ikasiz, klase agintariak odole-tan ito zuen Siriako iraultza hazia ernatu aurretik eta Libiakoa suntsitu egin zuen. Tunisian eta Egipton gertakariak ezustean harrapatu zuten klase agintaria: bi herrialde hauetan langile klasea oso indartsua da, garaipen historiko batetik zetozen eta gainera inperialismoak zailtasunak zituen zatiketa sektarioak sustatzeko. Horrela, bere taktika ezberdina izan zen. Denbora irabazten saiatu ziren era guztietako maniobra eginenez eta mugimenduak indarra galtzea itxaronez. Kontzesio demokratiko formal eta mugatuak eskaini zituzten mobilizazioak geratzeko esperantzarekin. Asanblada Konstituziogileak hitz eman zituzten ezkerrek amua jan eta sozialismoaren aldeko borroka eta masen aldarrikapenak alde batera utz zitzaizkien: soldata igoerak, etxebizitza duinak, oinarritzako produktuen prezio duinak, osasun eta hezkuntza publikoa, eskubide demokratikoak...

Eta aldarrikapen hauek posible egiteko beharrezkoa zen beste hauek ere aurrera eramatea: bankaren eta monopolio inperialisten nazionalizazioa, herrialdeko agintarien eta bur-

gesiaren jabego eta enpresen desjabetzea eta lurra nekazariei ematea.

Era guztietako hauteskundeak egin ziren (askotan iruzur zantzuekin) kapitalaren diktadurari itxura demokratikoa emateko. Noski, diktaduraren aurkako “epaiketa politikoaren” fartsa egin zen, eta Mubarak epaitegira eraman zuten. Dena den, maniobra hauek ez zuten nahikoa eragin izan mugimendua geldiarazteko, eta abstentzio masiboak desautorizatu zituen.

Islamisten papera

Altxamenduak aurrera egin ez zezan, arabiar burgesiak eta inperialistek (batez ere estatubatuarrak) Egiptoko Anaia Musulmanen eta Tunisiako En Nahda erakunde islamisten zerbitzuak baliatu zituzten. Biak iritsi ziren gobernura baina emaitza eskasekin: Egipton bozka zezaketenen % 23ak bakarrik babestu zituzten eta Tunisian %21ak. Bai Anaia Musulmanek bai En Nahdak kapitalismoaren aldeko politika egin zuten, Estatuaren indar armatuak erabili zituzten mugimendua zapaltzeko eta programa sozial atzerakoia abiatu zuten. Honek inperialismoari mesede egin zion, ez bakarrik bere aldeko agenda politikoa aplikatzen zutelako, islamismoaren aurkako demagogia egitea ere errazten zielako. Demagogia hori baliatuz inperialismoak gobernu aldaketa prestatu zuen beren interesetatik gertuago zeuden estatu aparatuak aliatuen bitartez.

Gobernu islamistek aurre egin zioten gero eta zabalagoa zen masen altxamenduari. 2013ko udan ikusi genuenez, Egipton mobilizazioak hazi eta Tahrir plazara itzuli ziren. Horrek Anaia Musulmanen isolamendua ekarri zuen. Era berean, Tunisian iraultza berpiztu zen: 2012ko ekainean eta 2013ko otsailean greba orokorrera dei egin zuen TLBO sindikatuak, azken 80 urteetan lehen aldiz, Mohamed Brahmi eta Chuki Bel Aid lider ezkertiarren hilketa salatzeke. Manifestazio historikoak izan ziren eta herri komiteak sortu ziren berriro.

Hala ere, erreakzioak egoera iraultzaile hau bere onurarako baliatu zuen. Abdelfata Al Sisi jeneralak estatu-kolpea eman zuen Egipton agintari militarren eta AEBren babe-

sarekin. Mursi presidentea atxilotu eta Anaia Musulmanen milaka militante hil zituzten. Batzuk adierazi zuten Al Sisi jeneralak protesta mugimendua usurpatu egin zuela herriarren artean militarrek zuten “prestigioagatik, baina ez zela estatu-kolpe klasiko bat izan. Baina errealtatean Al Sisi eta bere inguruko militarrek ohiko estatu-kolpe bonapartista eman zuten. “Islamizazioaren” aurkako aldarrikapen demagogikoak erabili zituzten Anaia Musulmanei aurre egiteko eta, horrela, ezkerreko sektore “aurrerakoiak”, besteak beste nasseristak eta Sindikatu Independenteen Federazioa, erakartzeko. Baina guzti hau helburu nagusia prestatzeko trikimailua zen: langile klasea, ezkerreko gazteria, sindikatuak eta herri komiteetako borrokariak gogor erreprimitzea, praktikan diktadura militarra ezarritz.



Tunisian, ezkerrek eta TLBOk aurkeztu zuten Nida Tunis alderdiak laiktasuna aldarri gisa aurkeztu bazuen ere, bere baitan hartu zituen diktadura garaiko elementuak. Aldarri harekin 2014ko otsaileko hauteskundeak irabazi zituen, baina zazpi puntuko aldearekin bakarrik. Paradoxikoki, beren laiktasuna berehala galdu zen eta lau hilabeteren buruan En Nahda erakunde islamistarekin akordio batera iritsi ziren.

Borrokak jarraitzen du eta kontzientzia aurrera doa

Bai, iraultzaren lehen etapak porrot egin du, eta kontrairaultza agintean da herrialde esanguratsuenean, Egipton.

Gerrarik ez den herrialdeetan gobernuak bertako burgesiaren eta potentzia inperialisten interesak defendatzen dituzte. Hala ere, borrokak jarraitzen du eta historiaren satorra bere lana egiten ari da.

Tunisian leherketa soziala izan zen pasa den urtarrilean, eta Egipton, errepresioa ankerra izan arren, langile borrokak ez du etenik izan, eta negu honetan sektore eta eskualde guztietara zabaldu da: 3.000 langilek egin dute greba altzairu konpainia handienean, 11.000k Iron and Steel Companyn, 12.000k Petrotrade petrolio enpresan, 15.000k Shebi al-Kom Textile Compayn (enpresa hau bernazinalizaturik dago eta grebalariek pribatua zenean izandako kaleratuak kontratatzea aldarrikatu zuten hiru astez), 2.000k Suezko Kanaliko enpresan (soldata %400 igotzeko eskatuz), Assiut ongarrien enpresa

okupatu zuten langileek; elikagai sektoreko langileek, seguru agentzietakoek, metrokoek edo medikuek ere greba egin zuten poliziaren errepresioaren aurka. Greba uholde hau Misr Spinning and Weaving enpresako 14.000 grebalariek eta ehungintzako enpresa bateko beste 7.000 langilek lortutako garaipenaren ondorioz zabaldu zen. Bi greba horiek modu arriskutsuan hedatu ziren eta Al Sisiren gobernuak atzera egitea lortu zuten.

Esperientziak ez dira alferrikakoak, mingarriak izan badaitezke ere. Konfiantza sendoa dago milaka ekintzaileen buruetan, honen erakusgarri dira gertakariak. 2011ko otsailean adierazi genuen bezala, “eskubide demokratikoak eta lorpen sozialak ezin lor daitezke sistema honen barruan. Inperialismoak ez du erlaxatuko krisi garaian langileak eta beste zapalduak itotzeko erabiltzen duen bere burdinazko besoa (...). Herrialde arabiarrek bizi duten egoerak Trotskyk garatu zuen etengabeko iraultzaren teoria aldarrikatzen du. Masen aspirazio demokratikoak osorik bermatzeko eta bizi baldintzak errotik hobetzeko modu bakarra inperialismoaren eta kapitalismoaren aurkako neurri eraginkorrrak hartzea da (...) Langile klase arabiarrek, gizarteko zapaldu guztien buruan jarrita, boterea bere eskuetan hartu behar du”.

Udaberri Arabiarraren bosgarren urteurrena

Inperialismoak eta kontrairaultzak ez dute lortu borroka geldiaraztea

Bost urte bete dira Udaberri Arabiarra deitutakoa, hau da, Tunisian, Egipton eta Libian diktadura ahalguztidunak garaitu zituen mugimendu iraultzailea piztu zenetik. Gainera, prozesu hark Siriako, Yemengo, Bahreingo eta mundu arabiar osoko gazteak, langileak eta gizarteko gainerako sektore zapalduak bildu zituen. Askok idatzi da gaiari buruz, gehienetan masen borroka gaitzesteko eta mugimendu iraultzaileari egozteko munstro jihadistaren sorrera. Bada garaia gezur hauek baztertzeko eta inperialismoaren ofentsibaren eta kontrairaultzaren gainetik masa arabiarren borroka jarraitu egiten duela azpimarratzeko.

URTZI REGUERO

Mendebaldeko inperialismoaren, sozialdemokrazia-
ren eta estalinismoaren hainbat sektoretako bozemaileek iraultza-
ren aurka hitz egin eta haren benetako
izaera ezkutatu dute. Gezur ikaraga-
rriak bota dituzte milaka borrokalari-
ren, kartzelatuen eta hildakoen odo-
laren gainean. Siria suntsitzen eta
Ekialde Hurbila desorekatzen ari den
gerra zibila, Saudi Arabiako armadak
egindako esku hartzea Yemenen eta
Bahreinen, Libiako kaosa, Egiptoko

diktadura militarra edo jihadismoaren
basakeria iraultzaren jarraipentzat
hartzen dituzte, ez kontraktatzat, hau
da, kontrairaultzat. Hain zuzen
ere, mendebaldeko potentziak eta dik-
taturak babestu zituen oligarkia ara-
biarra izan dira herritarren justizia
soziala lortzeko nahia ito, hauen au-
sardia herrialde osoen suntsiketarekin
ordaindu eta munduko zapalduen me-
zu gogor bat helarazi dietenak.

Ukaezina da arabiar gazte eta lan-
gileen errealitatea dramatiko delako.
Kasu askotan, duela bost urte bai-
no okerragoa da egoera. Adibiderik



okerrena Siriako gerra da. Milioika
errefuxiatu eta milaka eta milaka hil-
dako eragiteaz gain, biztanleria za-
titu du potentzia inperialisten esku
hartzeak, itxuraz gairak den be-
reizketa sektarioa eraginez. Egipton,
mugimendua errepresio basatia jasa-
ten ari da. Tunisian, aldiz, Ben Ali
diktadoreak egindako zorra ordain-
tzeko erabili behar dute NDFak mu-
rrizketa gogorren truke emandako
maileguaren %82a, eta langabezia
orduan baino handiagoa da. Baina
hala ere, zailtasun guztien gainetik,

14. ORRIAN JARRAITZEN DU

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista